

## munduak guztiontzat behar ko luke

### ETIOPIA UTOPIA

Oheratzeko ordua da eta, egunero bezala, Patakon Ane Piratari ipuina kontatzeko prest dago.



GAURKOAN ZEIN IPUIN NAHI DUZU?

EZ DAKIT BA... AIZU PATAKON, ZER DA "WUKRO" HORI? ZER ESAN NAHI DU KAMISETAN DARAMAZUN LELOAK?

EDERKI, IPUIN HORIXE KONTATUKO DIZUT, WUKRORI BURUZKOA.



WUKRO ETIOPIAKO TIGRAY ESKUALDEAN DAGO, ETA OSO HERRI POBREA DA. 1992. URTEAN BERTARA IRITSI ZEN ANGEL OLARAN HERNANIARRA ETA LANEAN HASI ZEN. BERTAKOEK ZITUZTEN BEHAR LARRIENAK ASETU NAHIAN


ZUK EZAGUTZEN DUZU ANGEL OLARAN?

ASPALDIKO LAGUNA DA BAI, AFRIKAN EZAGUTU GENUEN ELKAR. TANZANIARA EGINDAKO BIDAIA BATEAN, TANZANIAN URTE ASKO EMAN ONDOREN IRITSI ZEN WUKRORA





ETA HALA IRITSI ZEN  
ANGEL WUKRORA, ETA BEREHALA  
MAITEMINDU ZEN HANGO AINGERUTXOEKIN,  
HANGO HAUREN IRRIAREKIN.



BAINA WUKRO OSO HERRI POBREA DA,  
BEHAR HANDIAK DITUENA. ETA ESKOLAREKIN,  
EZ ZEN NAHIKOA. ANGEL BERE KASARA HASI ZEN BEHAR  
HANDIENA ZUTENAK LAGUNTZEN. ETA HORRETARAKO  
EUSKAL HERRIKO LAGUN ETA SENIDEEN BABESA  
EZINBESTEKOA IZAN ZEN.




ANGELEN EGITEKOA BEREZ  
SAINT MARY IKASTETXEA SORTZEA ZEN,  
ETA HALAXE EGIN ZUEN. NEKAZARITZA, MERKATARITZA,  
ELEKTRIZITATEA, PINTURA, JANTZIGINTZA...  
ESKAITZA ZABALA DAUKA  
GAUR EGUN ESKOLAK.



EUSKAL HERRITIK IRITSITAKO  
LAGUNTZAREKIN LAN HANDIA EGIN DU  
ANGELEK WUKRON. HERRIKO EKONOMIA INDARTU AHAL  
IZAN DU BEHITEGIAK, ESNETEGIAK, BASOAK BERRITZEKO  
PLANAK... BULTZATUZ. ETA OSO GARRANTZITSUAK  
BIHURTU DIRA HERRIARENZAT.








EUSKAL HERRIKO HAURENTZAT  
OHIKOAK ETA EGUNEROKOAK DIREN GAUZA  
ASKO WUKROKO HAURENTZAT EZ DAUDE  
HAIN ESKURA.

HAUR GUZTIEK MEREZI DUGU  
ESKOLARA JOATEKO AUKERA ETA BATZUETAN  
ESKOLARAKO GOGORIK EZ IZATEKO  
AUKERA EZTA?



MEDIKUARENERA  
JOATEA GARESTIEGIA DA  
ASKORENTZAT. HAUR ASKO UMEZURTZAK  
DIRA HIESAK ETA TUBERKULOSIAK ERAMAN  
DIZKIELAKO GURASOAK. EGUNERO JATEKORIK  
EZ DAUKATE... ETA ANGEL OLARANEK  
HORRETAN GUZTIAN LAGUNTZEN DIE.



EGIA ESAN, ZENBAT GAUZA EGIN DITUEN ANGEL OLARANEK...

HORREGATIK ESATEN DIOTE AFRIKAKO  
AITA ZURIA. BAINA EUSKAL HERRITIK ETIOPIA UTOPIA  
FUNDAZIOAK EMANDAKO LAGUNTZA EZIBESTEOA IZAN DA  
HORRETARAKO. ETA... TIRA, BIHAR SEGITU BEHARKO DUGU  
IPUINA. ONDO LO EGIN MAITEA...



ANGEL OLARANEK ERE EDERKI  
DAKI ZENBAT BALIO DUEN HAUR BATEN  
LO LASAIK, BERDIN HEMEN, WUKRON EDO  
MUNDUKO EDOZEIN BAZTERRETAN...



**ETIOPIA**utopia  
FUNDACIÓN · FUNDAZIOA · TIKAL

Etiopia Utopia Fundazioa irabazi  
asmorik gabeko erakunde bat da,  
helburua, Wukron eta hedaduraz,  
Tigray eskualdean (Etiopia),  
garapenerako lankidetzan lagundu eta  
laguntza humanitarioa ematea duena.



Horretarako gizarte sare bat  
sortu nahi da. Bertan herritarrak  
norbanako modura edo erakundeen  
bitartez laguntza eman dezakete.



Wukroko biztanleen hezkuntza,  
osasuna, elikadura eta oinarrizko  
beharrak asetzen laguntzea da  
helburua, oraina eta etorkizuna  
josten laguntzea.

ETIOPIA UTOPIA  
www.etiopiautopia.org  
Paseo Mikeletegi 53 E 2-24  
20009 Donostia, Gipuzkoa  
(+34) 943 005 863